

**“TOMAS GARBIZU”
LEZOKO UDALAREN
MUSIKA ESKOLA**

**2009-10
IKASTURTEA**

EKINTZAK



“TOMAS GARBIZU” LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

MATRIKULA EPEA **2009-2010** **IKASTURTEA**

IRAILAREN 1etik 3ra.
Musika Eskolako
Bulegoan,
09:30etatik 14:30etara

TRESNAK

Trikitixa, panderoa, pianoa, sintetizadorea, klarineta, saxofoia, txistua, oboea, flauta, perkusioa, biolina, biola, biolontxelo, fliskornoa, akordeoia, tronpeta, tronboia, bonbardinoa, kitarra, bateria, kitarra elektrikoa, kantua...

INFORMAZIOA

“Tomas Garbizu” Lezoko
Udalaren Musika Eskola.
Telf.: 943- 529999
tgarbizume@telefonica.net

- **IKASTURTEAREN AURKEZPENA:** Irailak 4, ostirala (17:00etan).
Presentación del curso: 4 de septiembre, viernes (17:00 horas).
- **KLASE HASIERA:** Irailak 7, astelehena.
Comienzo del curso: 7 de septiembre, lunes.

Erreterria |

Los nacidos en 1949 preparan su reunión que será el 31 de octubre

Se reunirán en el restaurante del Hotel Lintzirin para festejar que alcanzan los 60 años de edad

A los postres se celebrará un baile abierto a la participación de los quintos

LUISMA RODRIGUEZ



La comida será en el restaurante del Hotel Lintzirin. /ARIZMENDI

ERRETERIA. DV. Cuando finaliza el verano comienzan a proliferar las reuniones de quintos que adquieren cada año una mayor relevancia.

Este 2009 no va a ser menos y ya hay preparadas a lo largo de este mes y del siguiente varias celebraciones.

Dentro de estas cabe mencionar la que llevarán a cabo los nacidos en el año 1949, que debido a que en 2009 cumplen los 60 años quieren celebrar esta efeméride a la grande.

Bálsamo Bebé

Según han señalado por medio de una nota hecha pública «corría el año 1949, siglo XX, y en Rentería

(entonces), en algunos hogares se oían lloros de recién nacidos, en otros, la amatxo cambiaba diligentemente un pañal, un pañal de los de entonces, un pico de toalla y unas imperdibles...el sucio a la tabla de lavar, apenas existían lavadoras y, por supuesto, no se habían inventado los 'Dodotis'. Se olía a polvos de talco y a Bálsamo Bebé».

«En algunos otros, por estas fechas de mediados de año, alguna

etxeokandre andaba atareada haciendo sus labores domésticas con peso y volumen extra, pero eso sí con la ilusión de un próximo nacimiento».

Los quintos de 1949 señalan que «¡Eran otros tiempos! Nunca sabremos si mejores o peores. Pero para nosotros, los nacidos ese año, seguro que fue algo especial. Ahora algunos peinan canas, otros no necesitan peine, los más hemos ganado peso y volumen, somos ya la

'amoñi' o el 'aitona'...unos con la jubilación, otros la tenemos cercana...también nos han dejado algunos».

Pensar en presente

«Ahora –prosiguen diciendo los nacidos en 1949– pensemos en presente, nacimos ese año, luego tenemos 60 años, y vamos a celebrarlo ¡qué leche! Los que nacimos en el año 1949 en Erreterria u Oreta vamos a festejar dicha efemé-

ride con un día de Hermandad y por todo lo grande». Para ello, el próximo día 31 de octubre, sábado, tras la misa, irán a comer al restaurante del Hotel Lintzirin.

A partir de los cafés habrá «bailete», amenizado por Nerea Eskisabel, donde hay que demostrar lo bien que llevamos los sesenta».

Precio de 55 euros

El precio de la comida será de 55 euros, cantidad que hay que ingresar en la cuenta de Caja Laboral 3035 0011 25 0111231993, indicando claramente el nombre y apellidos de los asistentes.

Los organizadores han indicado que habrá servicio de autobuses desde la Alameda.

Si alguien quiere más información, puede llamar a Arantza 676674177, Jesús Mari 609098435, José Luis 570029883, o Belén 649750181.

Nacidos en 1938-39

Pero ésta no es la única celebración que va a tener lugar en fechas próximas, dado que también los nacidos en los años 1938 y 1939 celebrarán su segundo encuentro de hermandad el próximo 10 de Octubre (Sábado).

El programa comienza con la celebración de una misa en la Residencia de Ancianos del Sagrado Corazón a la que seguirá una comida en el Restaurante del Hotel Lintzirin.

Todas aquellas personas interesadas en tomar parte en este acto pueden llamar a María Esther (943 002670), María Pilar (943 512051), o a Jabier (943 515657).

Se ruega que lo hagan lo antes posible para poder facilitar la labor organizativa de los responsables. ■

Lezo |

Hoy se abre el plazo de matrícula en la Escuela de Música Tomás Garbizu para el nuevo curso 09-10

Los responsables del centro indican que tras finalizar el plazo el jueves ya no se podrán apuntar

Hay una amplia oferta académica y especialmente en cuanto a los instrumentos

L. R.



Alumnos del Tomás Garbizu en una clase. /ARIZMENDI

El plazo finalizará el próximo jueves día 3 de septiembre inclusive y los responsables del centro han indicado que a partir de ese día ya no se podrán inscribir nuevos alumnos.

Requisitos

En cuanto a los requisitos que piden los mismos son los siguientes.

La edad mínima para poder apuntarse es de 4 años, es decir podrán hacerlo los padres con niños nacidos en 2005.

Por lo que respecta a la oferta entre la que pueden elegir hay materias complementarias como música y movimiento, lenguaje musical o formación musical.

A ellas hay que unir la técnica vocal, el canto y el conjunto instrumental. A la que hay que añadir el curso de música (Grupos).

Instrumentos

Por lo que respecta a los instrumentos que se pueden aprender, los mismos son los siguientes: trikitixa, pandero, piano, sintetizador, clarinete, saxofón, txistu, oboe, flauta, percusión, violín, viola, violonchelo, fiscorno, acordeón, trompeta, trombón, bombardino, gui-

tarra, batería y guitarra eléctrica.

Para más información todas aquellas personas que estén interesadas pueden pasarse por la sede de la Escuela de Música en el horario de apertura de la oficina, que es de 9.30 a 14.30, o bien llamar al número de teléfono 943529999, o por correo electrónico dirigiéndose a tgarbizume@telefonica.net.


Presentación del curso

La presentación del curso será este próximo viernes día 4 de septiembre a partir de las 17.00 horas y por lo que respecta al comienzo de las clases, éste tendrá lugar el próximo lunes día 7 de septiembre.

Presentación del curso: 4 de septiembre, viernes (17.00 horas).

Los alumnos de la Escuela además de recibir las clases que les permitirán introducirse en el conocimiento de la interpretación de distintos instrumentos, también participan a lo largo del curso en distintos conciertos y también adquiere protagonismo su presencia en la celebración de la Semana Pedagógica Musical que se lleva a cabo todos los años en Lezo. ■

LEZO. DV. La dirección de la Escuela Municipal de Música Tomás Garbizu de Lezo recuerda que hoy martes día 1 de septiembre se abre el plazo de matrícula para el nuevo curso 2009-2010.





Hilaren 7an hasiko dira klaseak Tomas Garbizu Musika Eskolan. L. ARANBURU

Musika Eskolan izena emateko epea bihar bukatuko da

Musika » Goizez eman behar da izena, 09:30etik 14:30era, Tomas Garbizu Musika Eskolako bulegoan

LUCIA ARANBURU

Bihar, irailak 3, Tomas Garbizu Musika Eskolan izena emateko epea amaituko da. Interesatuak, Musika Eskolako bulegotik pasatu behar dute goizeko 09:30etik 14:30ak bitartean. Hala eta guztiz ere, informazio gehiago nahi duenak 943 529 999 telefonora hots egin dezake.

Bi eratako ikastaroak eskeintzen ditu Tomas Garbizu Musika Eskolak. Alde batetik, ikastaro osagarriak, eta, bestetik, instrumentala.

Ikastaro osagarrien artean, mu-

sika eta mugimendua; musika mintzaira; hezkuntza musikala; ahots teknika-kantua; talde instrumentala eta musika kurtsoak aurkitzen dira.

Ikastaro instrumentalei dagoen bezala, musika tresna ugari ikasteko aukera dago. Trikitixa; panderoa; pianoa; sintetizadorea; klarineta; saxofoia; txistu; oboea; flauta; perkusioa; biolina; biola; biolontxelo; fliskornioa; akordeoia; tronpetea; tronboia; bonbardinoia; gitarra; batera edota gitarra elektrikoak, besteak beste.

Hilaren 7an, eskolen hasiera

Musika Eskolako arduradunek jakinarazi dutenez, 2009-2010 ikasturtearen aurkezpena irailaren 4an, ostirala, izango da Musika Eskolan, arratsaldeko 17:00etan. Bestalde, klaseak, datorren astelehenera hasiko dira.

Santakruzak hurbiltzen ari direla eta, Lezo pil-pilean dago

Santakruzak » Euskal Ezkontzaren desfilean parte hartu nahi duenak bihar arte dauka aukera dauka arropa eskuratzeko

L. ARANBURU

Santakruzak hurbiltzen ari dira eta dagoeneko Lezon hasiak dira jaiak prestatzen. Besteak beste, bihartik aurrera, danborradaren entseguak hasiko dira.

Ohi den bezala, entseguak arratsaldeko 20:00etan izango dira danborrada osatzen duen talde bakoitzak adostutako lekuetan. Alerruren entsegu, esaterako, Herri

Eskolan izango da; Tiñelurena Ibai-Ondon; Ixkulinena Ixkulinen bertan eta Altzaterena, elkarrearen egoitza.

Beraz, bihartik aurrera, (asteburua salbu), egunero izango dira taldeen entseguak danborradaren eguna iritsi arte. Hilaren 10ean entsegu orokorra izango dute talde guztiak, danborradaren bezperan hain zuzen ere.

Bestalde, dagoeneko salgai dardate Arrantzale Bazkariaren txartelak. Txingurri tabernan eskuratu daitezke bazkarirako txartelak, 20 euro ordainduta, larunbata bitartean. Bazkaria Irurtzun jatetxean izango da, hilaren 14an, eta prezioaren barruan autobusa sartzen da.

Horrez gain, Lezoko Gazte Asanbladak antolatutako duen Gazte Afariaren txartelak ere salteko jarri dituzte, Tiñelun, 9,99 eurotan. Gazte Afaria irailaren 12an izango da (larunbata), Tiñelun.

Bihar, desfileko arropa lortzeko azken eguna

Bihar, Euskal Ezkontzaren desfilean parte hartzeko arropa eskuratzeko azken eguna izango da. Hor-taz, desfilean parte hartu nahi duen orok, gauredo bihar, 19:30ak eta 20:30ak bitartean, Murixka Dantza Taldeko lokaletik pasatu behar du desfileko jantziak aukeratzera.

Dena dago ikasliburuetan

ikasliburu guztiak eskuratzeko:


ekar

www.ekar.com



Kotxe batek su hartu du

GERTAKARIA » Kotxe batek su hartu zuen herenegun, Polentzarrene kalean. Goizeko 11:45ak aldera jazo zen ezbeharra, kotxea martxan zegoela eta autoan lau bidaiari zihozazela. Bizilagun batek ohartarazi zituen bidaiariak kotxea sutan zegoela. Suhiltzaileak bertaratu behar izan zuten sua itzaltzera; ez zen zauririk egon. 0ARSOALDEKO HITZA




ORSON
ASTEAD



ALTAMIRAKO JAIAK.
(IRAILA 2009)

Altamirako jaiak

irailaren 4, 5 eta 6an



Lezo 2009


"ALTZATE"

Altamira Auzo Elkarte

Tomas Garbizu, z/g. - Tel. 943 52 92 02

Altamira - 20100 LEZO

e-mail. altzate.lezo@euskalnet.net



Gaur hasiko dira Altamira auzoko jaiak, etzira arte

Jaiak » Haur, gazte zein helduek ongi pasatu dezaten hamaika ekimen antolatatu dituzte Altamirako auzotarrek

» EGITARAUA

Gaur

■ **16:30.** Ur eta aparjaila, auzoko frontoian.

■ **19:00.** Txupinazioa, Altzate Auzo Elkarteko erraldoi eta buruhandien konpartsaren laguntzaz.

■ **20:00.** Sardina-jatea.

■ **21:00.** Gazteen arteko afaria eta zinema.

■ **22:00.** XXVI. Tute Txapelketa, auzo elkartearen.

■ **23:00.** Musika, goizaldera arte, auzo elkartearen.

Bihar

■ **11:00.** Diana zaratsua, Karmenetik hasita.

■ **11:00.** Pala finala.

■ **12:00.** Urjokoak, Altzaten.

■ **12:00.** XXVI. Toka Txapelketa, auzo elkartearen.

■ **12:30.** Futboleko finalak.

■ **14:30.** Lehen itsaski-janaren zozketa. Saria 150 euroko bale bat izango da.

■ **16:30.** IV. Truk Txapelketa, auzo elkartearen.

■ **16:30-19:00.** Urjokoak, Altzaten.

■ **17:00.** Haur eta gaztetxoentzako jokoak, auzoko frontoian.

■ **21:00.** Aferia, auzoko danborradan parte hartuko dutenentzat, auzo elkartearen.

■ **23:00.** Gaueko danborrada.

■ **Ondoren.** Suzko zezena, auzo elkartearen.

■ **24:00.** Gaupasa, auzo elkartearen.

■ **03:00.** Baratxuri zopa, auzo elkartearen.

Etz

■ **10:00.** Diana txarangarekin, Sagazulotik hasita.

■ **11:00-13:30.** Urjokoak, Altzate igerilekuan.

■ **12:00.** Meza Santua, Lezoko parrokian.

■ **12:30.** Haur danborrada, auzoan zehar.

■ **14:30.** Bigarren itsaski janaren zozketa. Saria 150 euroko bale bat izango da.

■ **16:30.** XXVI. Mus Txapelketa.

■ **16:30-19:00.** Urjokoak, Altzate igerilekuan.

■ **19:00.** Txokolate-jatea.

■ **20:30.** Sari banaketak eta amaierako txupinazioa.

LUCIA ARANBURU

Santakruztei hasiera emateko aste bete falta denean, Altamiran dena prest dago gaur bertan jaietan murgiltzeko.

Altzate Auzo Elkarteen egoitzatik botako dute jaietako hasiera emango dion suzuria, eta ohi den bezala, Antonio San Nazario Pino auzokidea izango da txupina botako duena. Ordutik aurrera, «giro aparta» eta «alaitasuna» nagusi izatea espero dute antolatzaileek.

Guztientzako jaiak

Hiru egunetan zehar, haur, gazte, zein helduek hamaika ekimenez gozatzeko aukera izango dute. Izan ere, egitarau oparoa prestatu dute aurtengoan jaietan antolatzaileek. Besteak beste, sardina-jatea, danborrada, urjolasak, buruhandiak, gazteen arteko afaria eta hainbat lehiaketa izango dira.



Irudian, herritar taldeko kideak abururekin Jaizkobeigo bidea estaltzen. o.h.

Jaizkibelgo bide berria salatzeko ekimena egin dute

Ingurumena

Hondarribiatik Mutrikura doan bideko Jaizkibelgo zatia estali zuten zenbait herritarrek

teaz gain, Natura 2000 sarearen barruan babestuta dagoela eta bide «artifizial» horrek ez dituela derri gorrezkoak diren habitatan inguruko ingurugiro azterketak izan.

«Etekin ekonomioak helburu»

Bide honekin Aldundia «ingurua babestu eta mantentzearen gaine, lurrak hiritartzeak dakartzan helburu ekonomikoak» soilik babesten ari dela salatu zuten.

Izan ere, haien ustetan, bide horrek turismoa erakartzea eta dirua lortzea du helburu: «Gure inguruetan ikusten ari garen gainontzeko lur mugimendu bortitz guztiek bezala, proiektu honek ere eredu ekonomiko, politiko eta sozial bati baino ez dio erantzuten, garapenaren izenean egindako santsiketari».

Mendia denen eskura egoteak paraje naturalaren masifikazioa ekarri lezakeela azaldu zuten taldeak eta, «Jaizkibel dagoeneko Superportua eta okupazio militarren gisako makroproiektuengandik erasotuta egonda», bide berria «gehiegizkoa» dela gaineratu zuten.

L. ARANBURU

Abuztuaren 13an, herritar talde batek salaketa ekintza egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundia Jaizkibelen egiten ari den bide berria salatu, eta «Jaizkibel mendiak bere egoera naturala berreskuratzeko».

Hala, Mendia utz dezagun mendi lelopean, aburrak eta palak hartu, eta eraikitzen ari diren bide berriaren zati bat lurrez estali zuten.

Hondarribiatik Mutrikura doan bidearen bost kilometroko zatia eginda dago dagoeneko, tartean, Jaizkibelgo zatia. Bidea osorik egitekotan, «garrantzizko zenbait habitatu» zeharkatuko litzukeela adierazi zuten ekimenaren bultzatzaileek.

Hori dela eta, gogora ekarri zuten Jaizkibelek bere baitan «kalak ezina den aberastasuna» izan.



Altamirako jaietan, apar festa. Klasiskoa da festa hau herriko auzoko jaietan. LOREA MUGURUZA

ZUMARRAGA · URRETXUKO I. DUATLOIA

Irailak
12



Ordua
17:00



asirauto

PLAZAOLA

Gurutza Gorria


IZEN EMATEA: www.triatloi.org



OIARTZUN IRRATIA
lan poltsa osatzen ari da

esatari, komertzial, soinu teknikari, webgune egile eta administrari lanetarako.

Interesatuak bidali curriculumara irailaren 15a baino lehen lanpoltsaoi@gmail.com helbidera edota Arraskularre 12, behea 20180 Oiartzun helbidera.



Jose txo Etxandi Oroitaldia finalerdietan sartuta

Pilota » Inoizko partaidetza handiena izan du txapelketak; finalak Santakruzetan jokatu dituzte

degiko pilotalekura lekualdatuko dituztela jakinarazi dute txapelketaren arduradunek.

Federatuak

Federatuen Mailan, berriz, asteartean, asteazkenean eta ostegunean jokatu ziren final-laurdenetako partidak.

LUCIA ARANBURU

Jose txo Etxandi Oroitaldiko XXIV. edizioa pil-pilean dago egunotan. Txapelketa hasi zenetik gaur arte, 100 partida baino gehiago jokatu dituzte Federatuen Mailako eta Herri Mailako Kategorien artean. Gaurtik aurrera, esaterako, finalerdietako partidetan murgilduko dira Herri Mailako pilotariak.

Hala, gaur, Herri Mailako Kategorian, Haurrek, Gazteek eta Helduek final-laurdenak jokatu dituzte. 10:00etan, Gaztetxoan Mailakoen eta Haurren Mailakoen txanda izango da eta, guztira, zortzi partida jokatu dituzte.

Arratsaldean, berriz, Helduen Mailako final-laurdenak ikusteko aukera izango dute Goiko Plazako pilotalekura bertaratzen direnek. 18:00etan hasiko da ikuskizuna eta bi partida jokatu dituzte.

Herri Mailako Katetoria guztien finalak, irailaren 12an, (larunbata) izango dira, Goiko Plazako pilotalekuan. Hala ere, euria egiten badu, partidak Bekoerrota kirol-

Gazteen Mailan, Arrieta-Lana eta Urbietia II-Zinkunegi bikoteek eskuratu zuten beren partidetak garaipena. 22 Urteetik Beherako Mailan berriz, Apezetxea eta Albi-su nagusitu ziren.

Bestalde, Lehen Mailako Afizionatuen Kategorian, hiru partida jokatu ziren. Partida horietan, Mendizabal-Jauregi, Idoate-Landidibar eta Muguruza-Galarraga bikoteak nagusitu ziren, honela final-laurdeko partidarako txartela lortu zuten.

Lehen Mailako Afizionatuen arteko norgehiagoka parekatuena, Muguruza-Galarraga eta Arraldalopez bikoteen artekoa izan zen. Izan ere, bi bikoteek erakustaldi bikaina eskaini zuten 22 eta 20 emaitzarekin irabazi zuten Muguruza eta Galarragak.

Federatuen Mailako finalerdiak, datorren astean

Federatuen Mailako final-laurdenetako partidak datorren asteazkenean eta ostegunean jokatu dira



Federatuen Mailako pilotariak, herenegun, Bekoerrota kiroldegiko pilotalekuan lehian. L. ARANBURU

Bekoerrota kiroldegiko frontoian, 18:30etik aurrera. Egun bakoitzean bi bikote lehiatuko dira eta partida horietan irabazten dutenek, irailaren 14an, finala jokatu dute arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

Oroitaldiaren XXXIV. aldi honetan, inoizko partaidetzarik handiena izan du Jose txo Etxandi

lehiaketak. Herri Mailan 83 bikoteek hartu dute parte eta Federatuen Mailan, berriz, 24 bikoteek.

Antolatzaileak, pozik

Egitasmoaren antolatzaileak pozik daude lortu duten partaidetzarik eta pilotariak erakutsi duten mailarekin. Gainera, partidetan

izan den giroa aparta izan dela nabarmendu dute eta herritar asko hurbildu da partidak ikustera.

Txapelketa bukatu artean, giro onak jarraitzea eta jendea partiduak ikustera animatzea nahi dute. Izan ere, partida erabakigarrien txanda iritsi da dagoeneko Lezoko pilota lehian.



Altamirako jaiak hasi dira

JAIK • Altzate Auzo Elkarteko ordezkariak txupina botatzarekin batera hasi ziren atzo Altamirako jaiak. Eguraldi txarra ahaztuta, bizilagun asko hurbildu zen jaiari hasiera ematera. Ondoren, buruhandi eta erral-

doiek auzoko kaleak festaz jantzi zituzten txistularien laguntzarekin, eta sardina-jateaz gozatzeo aukera ere izan zuten Altamirako bizilagunek. Euriaren gaitetik giro ona nagusi, beraz, Altamiran. L. ARANBURU



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Oarsoaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • oarsoaldea@oarsoaldeko hitza.info / Tel.: 943-34 03 30



SANTAKRUTZ JAIAK.
(IRAILA 2009)


Santa**Krutz**Festak
LEZO 2009
Irailak 11-15

1.14



Lezoko Unibertsitateko Udala





» EGITARAUA

Gaur, ostirala

■ **19:00.** Alkate txikiak jaiak hasiko dituzte. Jarraian, Murixkako dantzarien agurra. Segidan, Tomas Garbizu Musika Eskolako Musika Bandak eta Lezoko Txistularien taldeak Tomas Garbizuren Lezoko Herria ereserkia joko dute Gurutze Santuaren plazan. Ondoren, buruhandi eta erraldoien kalejira, Lezoko Txistulari Taldearekin.
■ **20:00.** Preso eta iheslarien aldeko enkartelada Etxeratak deituta.
■ **23:00.** Modestorekin dantzaldia, Gurutze Santuaren plazan.
■ **00:00.** Allerruren, Altzateren, Ixkulinen eta Tiñeluren helduen danborrada.
■ **00:30.** Modestoren dantzaldiaren jarraipena, Gurutze Santuaren plazan.

Bihar, larunbata

■ **09:00.** Afizionatuen txirindulari froga, Jauregiadetik hasita.
■ **10:00.** Diana.
■ **11:00.** Herrien Arteko Euskal Jo-

koen Finala izango da, Goiko Plazan.
■ **12:00.** Buruhandien kalejira, kiroldegitik abiatuta, Lezoko Txistulari Taldearekin.
■ **12:00.** Afizionatuen txirindulari frogaren bukaera, Jauregialden.
■ **16:30.** Truk txapelketa, Tiñelu elkartearen.
■ **17:00.** Arin-arin eta Fandango dantza txapelketa, Gurutze Santuaren plazan.
■ **18:00.** Jose txo Etxandi Herri Mailako Pilota Txapelketaren finala.
■ **18:30.** Buruhandi eta erraldoien topaketa, Lopene auzotik abiatuta.
■ **21:30.** Gazteen afora, Zubitxon.
■ **23:00.** Dantzaldia, Bide Batez dantza taldearekin, plazan.
■ **00:00.** Larrain dantza, Gurutze Santuaren plazan.
■ **00:30.** Dantzaldiaren jarraipena, Bide Batez dantza taldearekin.

Etzi, igandea

■ **10:00.** Diana.

■ **11:00.** Marmitako Txapelketa, Bekoerrotako kiroldegiko frontoian.
■ **11:00.** Haur jolasak Jakin eta jolas taldearekin, Euskal Herria Plazan.
■ **11:30.** Toka Txapelketa, Kaialden.
■ **12:00.** Euskal Erromeriaren desfilea, Lopenetik abiatuta.
■ **14:00.** Herri bazkaria, kiroldegiko frontoian.
■ **17:00.** Korri eta Xaltoren Esketx Ederrena emanaldiaren aurkezpena, Gurutze Santuaren plazan.
■ **19:00.** Buruhandi eta erraldoien kalejira Lezoko Txistulari taldearekin, kiroldegitik abiatuta.
■ **19:30.** Gurutze Santuaren Bezerak.
■ **20:00.** Musika eta Dantza: Erdizka Lauetan, Gurutze Santuaren plazan. Kalejira Lezoko Txistulari taldearekin kiroldegitik abiatuta.

Etzidamu, astelehena

■ **10:00.** Diana.
■ **11:00.** Meza Nagusia.

■ **11:00.** Txikieneztat, Aintzinako haur jolasak Kulkirekin, Euskal Herria Plazan. Helduagoentzat, Zinta Lasterketa, Goiko Plazan.
■ **12:00.** Herri kirolen txapelketa izango da Gurutze Santuaren plazan: Izeta II, Aimar Irigoien, Mugerza, Larretxea, Rekondo eta Olsagasti.
■ **12:30.** Arrantzaleen Elkartzea Gurutze Santuaren plazan, kalejira egiteko.
■ **14:00.** Bazkaria erretiratuentzat, Lintzirinen. 65 urtetik gorakoentzat da.
■ **14:30.** Arrantzaleen bazkarirako autobusa irtengo da Ijurkotik.
■ **17:00.** Afizionatuen Jose txo Etxandi XXXIV. Oroitaldiko finalak jokatu dituzte.
■ **17:00.** Zezentxoak eta pottokak izango dira plazan.
■ **19:00.** Buruhandien kalejira, Lezoko Txistulari taldearekin.
■ **19:30.** Berbena izango da Baleike taldearekin, plazan.
■ **22:30.** Zezensuzkoa, plazan.

Asteartea, hilak 15

■ **09:00.** Ganadu feria, Gurutze Santuaren plazan.
■ **11:00.** Ganadu ferien Sari Banaketa, Gurutze Santuaren plazan.
■ **12:00.** Idi demaren goizeko saioa izango da Goiko Plazan.
■ **14:00.** Baserritarren bazkaria, Ixkulina eta Tiñelu elkartearen bertsolariekin.
■ **17:30.** Idi demaren arratsaldeko saioa.
■ **19:30.** Buruhandien kalejira izango da, Lezoko Txistulari taldearekin.
■ **20:00.** Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Erika Lagoma eta Jesus Mari Irazu bertsolarien emanaldia izango da Gurutze Santuaren plazan, Jon Zaldua gaitzaitzailarekin.
■ **22:00.** Tomas Garbizu Musika Eskolako Bandaren emanaldia, plazan.
■ **22:30.** Zezensuzkoa izango da, Gurutze Santuaren plazan jaiak bukatzeko.

Arrantzaleen bazkarirako abestia sortu dute aurten

Santakruzak » Bosgarren urtez jarraian egingo dute; aurten, arrantzaleen bazkaria eta abestia sortu izana izango da berrikuntza

EKAITZ ARRIETA

Aurten bosgarren Arrantzaleen Bazkaria izango da Irurtzun jate-txean. Gainera, inoizko jendetzarik handiena bilduko da bertan, izan ere, 170 lagunek erosi dute bazkarirako joateko txartela.



Azken egunetan azken ukituak eman dizkiote kantari. OARSOALDEKO HITZA

Egindako abestia Lezo herriarekin identifikatu nahi dute, Lezoko jaiekin eta Santakruz Egunarekin, zehazki.

12:30ean jarri dute hitzordua

Gurutze Santuaren plazan, poteoa eta kalejira egiteko. Bazkaltzera joateko autobusa, berriz, 14:30ean aterako da Ijurkotik. Bazkaldu ondoren, herrira itzuliko dira denak.

Korri eta Xaltok lan berria aurkeztuko dute etzi, plazan

Santakruzak » 17:00etan hasita emango dute 'Esketx ederrena' lana; hamar urte beteko dituzte laster herriko pailazoek

Hamar urte beteko dira laster *Trapujale* lana aurkeztu zutenetik, eta Euskal Herri guztian zehar 400 emanaldi baino gehiago egin dituzte. Goizean bertan Dulantzín (Araba) beste emanaldi bat eskainiko dute, *Artista bat naiz ni* hain zuzen.

E. ARRIETA

Korri eta Xalto herriko pailazoek lan berria aurkeztuko dute Santakruzetan. *Esketx ederrena* du izena Korri eta Xaltoren azken lanak, eta lehen aldiz ikusteko aukera izango dute Lezoko txikiak. 17:00etan hasiko da ikuskizuna, plazan.

Hainbat pertsonaje

Korri, Xalto eta Brinko kantari saioan herriko jendearekin eta musika eskolakoekin egindako diska aurkezten ari dira orain. Bestalde, bigarren diska eta beste ipuin bat argitaratu nahi dute aurten.

ARGIBAT, S.L.
HORNIDURA ELEKTRIKOAK

Lopene plaza, 5 • 20100 Lezo
argibat@euskalnet.net

Festatan argi ibili!

Tel.: 943 51 21 01
943 34 45 76
Faxa: 943 51 21 01

MADELESA, S.L.

Ipintza industrialdea, 22
20100 LEZO • Tel: 943 52 51 39

PASAI, S.L.L.

- Galdaragintza
- Soldadura eta mekanizazioa
- Tutuerien instalazioak
- Depositoak presioan
- Mantentzen industria
- Itsasontzen konponketak

Industrialdea, 6-27 pabilioia
Tel.: 943 52 61 94
Faxa: 943 52 33 16 - LEZO

Bordalaborda kalea, z/g
Tel.: 943 52 59 50
PASAI DONIBANE

J. ARRUTI, S. L.

Zubitxo, 25 - behe - 20100 LEZO
943 51 11 85 • Faxa: 943 51 01 97

Eraikuntzak eta Erreformak

KAILDE

sukaldaritzak tradizionalak

Egunero menu desberdinak


Menua • Kartea • Dastaritzako menua

- 60 laguntzarikoa jantzia
- 40 laguntzarikoa 1/2 jantzia

Aire giroa ere baldin

Astrolena, astrolena, astrolena
eta ostigun gauzak izaten

Plaza Lezo, 11 • 20100 LEZO • Tel: 943 51 11 85
www.kailde.com





Buruhandiek eta erraldoiek ezin dute hutsik egin Lezoko festetan. Atzo jaien hasierara fin azaldu ziren. LUCIA ARANBURU



Tomas Gabizu Musika Eskolako banda, jaien hasieran, atzo. JONGONZALO



Gurutze Santuaren plaza lezoarrez bete zen jaien hasiera ikusteko. 19:00ak baino lehenago tokia hartu zuten. J. GONZALO



Muxika Dantza Taldeko haurrak, jaien hasierako protagonista. LUCIA ARANBURU

Lehertu dira santakruzak

Jaiak » Asteartera arte musikaz, dantzaldiez, txapelketez, danborradez eta beste hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango da herrian

LUCIA ARANBURU

Arratsaldeko zazpiak hurbiltzen ari zirela, udaletxeko balkoitik Alkate Txikiak urduri begiratzen zioten plazan bilduta zegoen jende mordoari. Une berean, plazan, haurrek, gazteek eta helduek ordulariari so zeuden, zazpiak noiz iritsiko zain. Azkenean heldu zen

lezoarrek hainbeste desiratzen zuten ordua eta Alkate Txikiak bota zuten suziria. «Gora Lezo! Gora Santakruzak!» esan zuten. Jaiak hasi ziren, eta orduetik aurrera, festa nagusitu zen Lezón.

Txupinazoaren ondoren, Tomas Garbizu Musika Eskolako Musika Bandak, *Lezoko Herria*

ereserkia jotzen zuen bitartean, gaztetxoak, urduri, buruhandiak noiz iritsiko zain ibili ziren. Azkenean azaldu ziren buruhandiak, eta erraldoien eta txistularien laguntzaz, Lezoko kaleak zeharkatu zituzten.

Gau aldean, Modestoren musika aparailuak giro ederra jarri zuen Gurutze Santuaren plazara danborrada iritsi zen arte. Txiki gelditu zen plaza, danborradako lau taldeek eta ikusleek txoko guztiak bete zituztelako. Halakoak dira santakruzak.

» GAURKO EGITARAUA

- **09:00.** Afizionatuen txirridulari proba, Jauregiadetik hasita.
- **10:00.** Diana.
- **11:00.** Herrien Arteko Euskal Jokoen finala, Goiko Plazan.
- **12:00.** Buruhandien kalejira, kiroldegitik abiatuta.
- **12:00.** Afizionatuen txirridulari probaren bukaera, Jauregiaren.
- **16:30.** Truk txapelketa, Tiñelun.
- **17:00.** Arin-arin eta Fandango txapelketa, Gurutze Santuaren plazan.


- **18:00.** Josetxo Etxandi Herri Mailako Pilota Txapelketaren finala.
- **18:30.** Buruhandi eta erraldoien topaketa, Lopene auzotik abiatuta.
- **21:30.** Gazteen afaria, Zubitxon.
- **23:00.** Dantzaldia, Bide Batez dantza taldearekin, plazan.
- **00:00.** Larraín dantza, Gurutze Santuaren plazan.
- **00:30.** Dantzaldiaren jarraipena, Bide Batez dantza taldearekin, Gurutze Santuaren Plazan.



argazki
lehiaketa **09**

bidali zure oporretako argazkiak
epea: irailaren 18ra arte

Irabazleak:
300 euroko bonoa,
Valentin dendan




Errenteria-Oreretako argazki onenaren egileak 50 euroko bonoa jasoko du Valentin argazki dendan.

Lehen lau sailkatuek HITZA-ren gerriko poltsa irabaziko dituzte.

Bidali argazkiak posta elektronikoz oarsoaldeko oarsoaldeko hitza info-ra edo posta artun bidez Errenteria-Oreretako Santa Klara 22 helbidera

- Udakoak izan behar dute.
- Argitaratu gabeak, eta norberak egindakoak.
- Paperean, diapositiban eta formatu digitalean onartzen dira.
- Ezaugarriak: 15x18 zmkoko tamaina gutxienez; 250eko bereizmena -erresoluzioa- gutxienez.
- Datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Argazkia non eta noiz aterata eta ikusten dena adierazi. Argazkiari izenburua jarri.
- Sarietutako argazkiak artxiboan gordeko dira, eta HITZAK behar dituztenean erabiliko ditu.





Txistulariak kalejiran ibili ziren herriko kaleetan barrena, atzo goizean. ERIK GARTZIA



Herenegun arratsean danborradek girotu zituzten herriko kaleak. 00:00etan txupinazoa bot



Atzo goizean, helduen txirindulari froga Jauregiadetik hasi eta bertan bukatu zuten. ERIK GARTZIA

EKINTZA BETE JAI LEZON

Santakruzak » Jaietako lehenengo bi egunetako ekitaldietan parte-hartze handia izan da

ERIK GARTZIA

Jaien lehenengo egunaren biharamuna ez zen denentzako berdina

izan. Santakrutzen gaueko parandazaleek ajearen gurutzebide partikularra nola edo hala pasa-

tzen ari ziren bitartean, zintzo portatu zirenek kolorea eta giroa eman zioten atzo Lezori. Goizean goizetik egon zen zer gozatua.

Bezperako danborhotsak isilduta, atzo goizean kirolerako unea iritsi zen. Goiko Plazan Herrien Arteko Xiba Jaialdia egin zuten.

Bertan Euskal Herriko zazpi herrialdeko kirolariak bildu ziren. Anabasa bitxi bezain antolatuan, lokotx-biltzen, ingudearekin, auzolanean, musean, tokan eta beste hainbat jardueretan aritu ziren. Zerua ilun-antzean bazegoen ere, lainoen mehatxua ez zen bete eta

eguraldi ezin hobea egin zuen eta jarduera fisikoak egiteko ezin aproposagoa izan zen.


Hala ere, ez ziren lehiatu ziren bakarrak izan. Izan ere, Afizionatuen Mailako txirindulari lasterketa egon zen Lezoko errepideetan. Caja Rural taldearen nagusita-

Carrefour



Carrefouekin posible da

www.carrefour.es



sunak erabatekoa izan zen. Jauregi aldeko helmugako sailkapeneko lehen hiru postuak talde horretako txirrindulariek bete zituzten. Garailea Alex Fabregas izan zen. Bigarrena, berriz, Mikel Filgueira izan zen eta mendiko saria ere eskuratu zuen. Hirugarrena Fabricio Ferrari uruguaiarra izan zen. Bera dago Euskalduna Txapelketako lehen postuan.

Nagusitasun horri aurre egiteko gai izan zen bakarra Aritz Bagues oreretarra izan zen. Tarteko helmugetan onena izan zen Bruesa-Laguntasuna taldeko txirrindularia.

Txapelketak eta erraldoiak

Arratsaldean, berriz, txapelketa gehiago jokatu zituzten Lezon. Bazkaldu ondoren, dagozkien sakramentuekin, truk txapelketa egin zuten Tiñelu Elkarteetan. Bikote andana bildu zen bertara eta elkarteke zein tabernako mahai guztiak bete zituzten.

17:00etan hasi zuten arin-arin eta fandango txapelketa. Neskaz eta mutilez osatutako bikote ugari

oholtzaratu ziren Gurutze Santuko plazaren eskenatokian. Behean, ikusle moduan, jende ugari zegoen.

Goiko Plazako frontoian, aldiz, goizeko Xiba Jaialdiak pilotari egin zion leku arratsaldean. Santakrutzetako ohitura bilakatu den Josetxo Etxandi Pilota Txapelketaren finalak jokatu zituzten atzo. 34. ekitaldia izan du aurtengoa Lezoko pilota txapelketak. Kategoria guztietako finalak jokatu zituzten atzo. OARSOALDEKO HITZAREN edizio hau ixterakoan, oraindik ez zuten txapelketa bukatu.

Euskal Herria plazan, erraldoien eta buruhandien topaketa egin zuten. Euskal Herriko hainbat txokotatik heldutakoak izan ziren Lezon. 18:30ean ateratu ziren bertatik erraldoi eta buruhandiak, Ijurko auzo aldera. Lezoko Txistulari Taldeak gidatzen zituen konpartsak, baina ez zihozaren bakarrik. Izan ere, hamarnaka haur eta euren gurasoak izan zituzten lagun bidean. Txikienek ez ezik, gurasoek ere izan zuten nahiko lan maskuriak ekiditen.

GAURKO ETA BIHARKO EGITARAUA

Gaur, igandea


- 10:00. Diana.
- 11:00. Marmitako Txapelketa, Bekoerrota kiroldegiko frontoian.
- 11:00. Haur jolasak Jakin eta Jolas taldearekin, Euskal Herria plazan.
- 11:30. Toka Txapelketa, Kajaialden.
- 12:00. Euskal Erromeriaren desfilea, Lopenetik abiatuta.
- 14:00. Herri bazkaria, kiroldegiko frontoian.
- 17:00. Korri eta Xaltoren *Ésketx Ederrena* emanaldiaren aurkezpena, Gurutze Santuaren plazan.
- 19:00. Buruhandi eta erraldoien kalejira Lezoko Txistulari Taldearekin, kiroldegitik abiatuta.
- 19:30. Gurutze Santuaren Bezerak.
- 20:00. Musika eta Dantza: Erdizka Lauetan, Gurutze Santuaren plazan. Kalejira Lezoko Txistulari Taldearekin kiroldegitik abiatuta.

Bihar, astelehena

- 10:00. Diana.

- 11:00. Meza Nagusia.

- 11:00. Txikienentzat, Aintzinako haur jolasak Kulkirekin, Euskal Herria plazan. Heltuagoentzat, Zinta Lasterketa, Goiko Plazan.
- 12:00. Herri Kiroren Txapelketa, izango da Gurutze Santuaren plazan: Izeta II, Aimar Irigoien, Mugerza, Larretxea, Rekondo eta Olsagasti.
- 12:30. Arrantzaleen Elkartearen Gurutze Santuaren plazan, kalejira egiteko.
- 14:00. Bazkaria erretiratuentzat, Lintzirinen. 65urtertik gorakoentzat da.
- 14:30. Arrantzaleen bazkarirako autobusa irtengo da Ijurkotik.
- 17:00. Afizionatuen Josetxo Etxandi XXXIV. Oroitaldiko finalak jokatu dituzte.
- 17:00. Zezentxoak eta pottokak izango dira plazan.
- 19:00. Buruhandien kalejira, Lezoko Txistulari Taldearekin.
- 19:30. Berbena izango da Baleike taldearekin, plazan.
- 22:30. Zezensuzkoa, plazan.



Atzo arratsaldeko Truk Txapelketa, Tiñelu Elkarteetan. ERIK GARTZIA



Herenegun gauean kontzertuak izan ziren Gaztetxean. OARSOALDEKO HITZA



Atzo arratsaldean, Josetxo Etxandi Herri Mailako Txapelketako finala jokatu zuten. ERIK GARTZIA

egunean 26 zentimoren truke. ZUREA DA HITZA

ORAIN harpidedun egin eta bidaia paregabe bat eskuratu dezakezu!



mallorca • tunisia • tenerife • europako hiriburuak • balnearioak
2 lagunentzat bidaia

ez galdu aukera

902-82 02 01


(Astegetan 08:30-20:30 / Larunbatetatik 09:00-13:00)

www.oarsoaldekohitza.info

eraman/bidaliz zure datuak:
Santa Klara 22 behea • 20100 Errenteria-Oretea


Izen-abizenak, helbidea, herria, PK, telefonoa, p.elektronikoa eta kontu zenbakia

Bidaia eta datuak erabiltzeko zure onarpena behar da.
Santakrutzeko hitza erabiltzen du.



Gaur izango da santakrutzen azkeneko eguna

Santakrutzak » Lezoko jaien egun nagusia izan zen atzokoa; egitarau zabalaz gozatu zuten lezoarrek, tartean, Arrantzaleen Bazkaria



Hamamaka lagun bildu ziren Arrantzaleen Bazkarian. AITZOL ZABALETA

ERIK GARTZIA

Lezoko santakrutzek hurrengo urtera arte agur esango diote gaur. Jaien amaiera hurbildu arren, ekitaldiek ez dute etenik izan. Atzo egun handia izan zen Lezon.

Goizeko hamaiketan eman zioten hasiera meza nagusiari. Jen-dez lepo bete zen Gurutze Santuaren eliza. Jendea kanpoaldean eta guzti pilatu zen. Ekitaldi erlijiosoiari bukaera ematean hasi zen herri kirolen erakustaldia. Harri-jasotzaileak eta aizkolariak ibili ziren plazan, nor baino nor, ikusle asko lekuko zirela. Ez ziren nolanhiko kirolariak. Harriak jasotzen Aimar Irigoien, Izeta Iia eta Landarbide aritu ziren; eta egurra moztzen, berri-z, Joxe Mari Olasagasti, Jon Rekondo, Donato Larretxea eta Floren Mugertza.

Lanak uzartu zituzten. Harri-jasotzaileak hasi ziren, bakoitza harri ezberdin banarekin. Jasoaldien ondoren, aizkolariak euren jardunari ekin zioten, bikoteka. Olasagasti eta Rekondo izan ziren garaile proba horretan. Harri-ja-

sotzaileek bigarren txanda bete ondoren, aizkolarien proba nagusiaren garaia iritsi zen. Oraingoan Larretxea eta Mugertza gailendu ziren.

Arrantzaleen Bazkaria

Herri kirolen saioaren ondoren, bazkarien ordua iritsi zen. Arrantzaleen bazkaria batetik, eta 65 urtetik gorakoena bestetik. Biak ala biak Lezoko erdigunetik urrun egin ziren. Lehena Irurtzun jate-txean izan zen eta bigarrena, aldiz, Lintzirinen.

Umeek ere eduki zuten gozatzeko aukera. Arratsaldeko bostetan zezentxoak eta pottokak egon ziren Gurutze Santuaren plazan. Pottoken gainean ibiltzeko aukera eduki zuten bertaratutakoek. Zezentxoekin, aldiz, sokamuturra egin zuten.

Baserritarren Eguna

Gaur santakrutzen azken eguna izango da. Baserritarren Eguna ospatuko dute. Idi-demak daude goizean eta arratsaldean.



Aimar Irigoien, ehun kiloko harriarekin. ERIK GARTZIA



Zezentxoaren aurrean ez ziren kokildu lezoarrek. A. ZABALETA

» GAURKO EGITARAU.

- 09:00. Ganadu feria, Gurutze Santuaren plazan.
- 11:00. Ganadu feriaren sari banaketa, Gurutze Santuaren plazan.
- 12:00. Idi-demaren goizeko saioa izango da Goiko plazan.
- 14:00. Baserritarren Bazkaria, Ixkulin eta Tiñelu elkarteetan, bertolariekin.
- 17:30. Idi-demaren arratsaldeko saioa.
- 19:30. Buruhandien kalejira izan-

- go da, Lezoko Txistulari Taldearekin.
- 20:00. Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Erika Lagoma eta Jesus Mari Irazu bertolarien emanaldia, Gurutze Santuaren plazan, Jon Zaldua gai-jartzailearekin.
- 22:00. Tomas Garbizu Musika Eskolako Bandaren emanaldia, plazan.
- 22:30. Zezensuzkoa, Gurutze Santuaren plazan.




Josetxo Etxandi pilota txapelketaren Afizionatu Mailako Finala jokatu zuten atzo. AITZOL ZABALETA

iragarkilaburrak.com

zure-iragarkia oarsoaldetik euskal herrira
oarsoaldeko hitza. iragarkilaburrak.com

iragarkia jartzeko: www.oarsoaldeko hitza.iragarkilaburrak.com/ 943-34 03 30/ Santa Klara 22 • Erretereria-Orereta
webgunean, ostiralero Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkarian argitaratuko da



Hamasei arlotan parte-hartze programak jarri ditu abian Udalak

Udala » Gobernu Taldetik esan dute lezoarrek udal gaietan parte hartzeko bideak «egonkortu eta iraunkortu» nahi dituztela

ERREDAKZIOA

Lezoko Udaleko Gobernu Taldeak agintean daramanetik izan diren herritarren parte-hartze programen gaineko hausnarketa egin du. Batetik, zifretan azaldu dute alor honetan egindakoa: hamasei arloen gainean jarri dituzte parte-hartze programak abian, eta horietan 200 herritarretatik gora aritu dira modu aktiboan parte hartzen: «Parte-hartzaile kopuruarekin eta hauek egindako ekarpenekin pozik gaude. Balorazio positiboa egiten dugu». Hala ere, etorkizunean parte-hartze bideak «egonkortu eta iraunkortu» nahi dituztela esan dute Gobernu Taldetik. Tartean, herritarren sare iraunkorra sortzeko ideia dute.


Gobernu Taldetik gogoratu dute «legealdirako jarritako lan ildo garrantzitsuenetakoa» dela herritarren parte-hartzearena. Udalaren funtzionamenduan aldatetarako eragitea «eta, modu berean, Udalak herritarrekin duen harreman modua» aldatzea izan dira helburuak, Gobernu Taldetik

adierazi dutenez: «Herritarrei dagokien protagonismoa eman diegu eta lezoarrek herrigintza lanetan aktibatu dira». Parte-hartze egitasmoak gauzatzeko talde eragileak sortu zuten Udalean. Gobernu Taldeko bi kidek, Elhuyar aholkularitzako bi kidek eta herritar batek osatzen dute talde eragile hori.

Orain arte egindakoak

Orain arteko parte-hartze prozesuen errepasoa egin du Lezoko Udalak. Bileran, aurkezpen eta eztabaida saioen zerrenda luzea izan da orain arte: Euskalerrria plazaren diseinua egiteko bilerak; Urdaburu kaleko bizilagunekin eta komertzioekin bertako lanen gainean egindakoak; Hirigintza Planeko hitzaldiak, aurkezpenak eta eztabaidak; herriko elkarteekin eta eragileekin osatutako Jai Batzordea; gizarte zerbitzuen inguruko batzordeak eta Euskara Batzordean egiten ari den hausnarketa; Guillermo Lazon kaleko eta Jauregialdeko bizilagunekin egindako bilerak...

Udalaren esanetan, bilera eta prozesu horiek «eraginkorrak» izan dira. «Bileretan parte hartu duten bizilagunek prozesua egoki ikusi dute. Lezoarren parte-hartzeari esker zenbait egitasmo hobetu egin dira. Halaber, herrita-



Lezo Berrio Euskaldun egitasmoari bultzada eman nahi izan dio Gobernu Taldeak, besteak beste. Irudia, egitasmo horretako bilkuretako batekoa da, Donibane kaleko Kultura eta Euskara aretoan egindakoa. OARSOALDEKO HITZA

ren iritzia jakiteko aukera izan du Udalak. Parte-hartze kopurua handia izan da», azaldu dute Udaltetik.

Etorkizunari begira

Aurrerantzean, martxan dauden prozesuez gain, bi asmo nagusi ditu Lezoko Udalak. Batetik, parte

hartzeko bideak «egonkortzea eta iraunkortzea». Horretarako, udal langileen inplikazioa bilatu eta udal araudietan parte-hartzea bultzatzeko neurriak hartuko dituzte.

Bestetik, herritarren sare iraunkorra sortu nahi dute. «Lezoko herritarren gainean herrigintzan arituko den sarea sortzea da helburua.

Herrirarekiko kezka eta ardura izango duen sarea eta modu aktiboan arituko dena. Udalaren eta herritarren arteko kanal egonkorra eta eraginkorra sortu nahi ditugu».

Helburu horiek lortzeko bilerak antolatuko dituzte herriko auzo eta zonalde guztietan.

Santakrutzen balorazio «oso positiboa» egin du alkateak

Jaiak » «Jendeak jaietan kaleak betetzen ditu; zerbait ari da aldatzen Lezon», esan du Haritz Salaberriak

ERREDAKZIOA

Lezoko Udaleko Gobernu Taldearen oso positiboa dago santakrutzek izan diren bilakaerarekin. Hala, eta Jai Batzordeak jaiaren balorazioak bilera aurrerago egingo duen arren, Gobernu Taldeko buru Haritz Salaberriak alkateak santakrutzen balorazio «oso positiboa» egin du. Gainera, Jai Batzordean eta santakrutzetan bertan lanean ibili direnei eskerrak helarazi dizkie alkateak, «egun hauetako balorazio positiboa haiei zor diegu eta».

Iritzi baikor hori izateko santakrutzetan izan den giroa eta herritarren parte-hartzea baloratu ditu Salaberriak: «Santakrutzek eta Lezok giro hotza izateko fama dute. Bi urte hauetako jaiaren balorazioak ikusita esan daiteke zerbait aldatzen ari dela Lezon». Udalaren zerregin nagusia «herri giro hau bultzatzea» zela nabarmendu du Salaberriak, eta helburu hori lortu dutela baieztatu du alkateak.



Jaietako irudia: Gurutze Santuaren plazan, sokamuturra. AITZOL ZABALETA

«Pozgarri zaigu jaietan gertatzen ari dena, giroaren eta parte-hartzearen gorakada hau, alegia», azaldu du.

Ekitaldi nabarmenenak

Gobernu Taldeak jaietako hainbat ekitaldi nabarmendu ditu, bereziki jendetsuak izan direlako. Honaikoa dira: Josetxo Etxandi Pilota Oroitaldiko partidak; jaiaren hasierako danborrada; Modesto musikariaren emanaldia nahiz bestelako dantzaldiak; herri bazkariak eta Baserritarren Eguna.

Alkateak egindako hausnarketaren arabera, duela urte batzuk «pentsaezina» zen jendeak Santakrutze Egunean jai hartzea, jai egunarekin gozatzeko: Alta, azken jaietan, lezoar askok egun seinaltatuaz gozatzeko hautua egin duela aitortu du alkateak.

Dena dela, egitaraua «oso sinplea eta betikoa» izan dela onartu arren, «gutxi ere jai handiak egin daitezkeela» argi geratu dela esan du Salaberriak. Izan ere «jai herrikoiak eta parte-hartzaileak izan dira».

egunean 26 zentimoren truke, ZUREA DA HITZA

ORAIN harpidedun egin eta bidaia paregabe bat eskuratu dezakezu!



mallorca • tunisia • tenerife • europako hiriburuak • balnearioak
2 lagunentzat bidala

ez galdu aukera

902-82 02 01


(Asteegunetan 09:30-20:30 / Larunbaitetan 09:00-13:00)

www.oarsoaldeko-hitza.info

eraman/bidali zure datuak:
Santa Klara 22 beheko • 20100 Errentaria-Oviedo

Izen-abizenak, Iebeidea, herria, PK, telefona, peletorikoa eta kartzu zenbaita

Denak eta datuak jaietarako erabiltzen dira. 30
Santakrutzen Eguna egunekoak, azarabak 6



SUTARGI DAX-en.
(URRIA 2009)

FESTIVAL

PROGRAMME


Ce soir

Vendredi 2 octobre 2009



DAX

SUTARGI DAX-en.
(URRIA 2009)



«EcoPort-a eta badiaren biziberritzea gezur handia» direla dio Udalak


Azpiegiturak » Portuaren bigarren Plan Bereziari helegitea jarri diote, eta kanpo kaira doazen tunelak eraikitzea salatu dute

ERIK GARTZIA

Lezoko Udalak «EcoPort-aren eta Pasaiaiko badiaren biziberritzearen gezurra» salatu du. Izan ere, «herritarrentzako kaltegarria» dela dio Lezoko Udalak eta «gizartearen eta ekonomiaren benetako beharrei» erantzuten ez diela errepikatu du Udal Gobernuak. Gainera, «gezuraren bitartez eraiki» nahi dutela salatu dute.

Horrela, Lezoko Udalak jakinarazi du hainbat urrats eman dituela kanpo kaiaren egitasmoaren gainean. Hiru puntutan eraman dituzte aurrera ekimenak: Espainiako Ingurumen Ministerioari igorritako txostenaren, Pasaiaiko Portuko kanpo kaiaren Plan Bereziari jarritako helegitearen eta, bestalde, Jaizkibel mendiaren azpian eraiki nahi duten tunelaren gainean.

Lezoko Udal Gobernuak jakinarazi duenez, Espainiako Ingurumen Ministerioari kanpo kaiak izango dituen eraginak azaltzen dituen txostena bidali diote. Bertan ere, «zaindu beharrek» ingurumen baloreak zeintzuk diren azaldu ditu Lezoko Udalak. Euren arabera, Portu Agintaritzaren dokumentuak dituen «akats eta gaizkiak» helarazi dizkiote Ministerioari. Gainera, eraiki nahi duten plataforma logistikoa, sarbideek



Pasaiaiko Portuko barruko kaiaren egungo itxura. NAGORE VEGA

eta kamioiek izango duten eragina «baloratzeko» eskatu diote Ministerioari, baita kanpo kaiaren eraiki nahi duten eremu energetikoa «zehazteko» ere. Barruko kaiko hobekuntzak aztertzeke eta «ekonomikoki dauden informazio falta eta datu kontrajarrien berri» eman dituela adierazi dute.

Plan Bereziari helegitea

Lezoko Udal Gobernuak udaran hartutako beste ekimenen Aldundiaren Pasaiaiko Portuaren Plan Bereziari helegitea jartzea izan da. Diotenez, plan horren arabera, Foru Aldundiak «legearen eta Udalen gainetik» jokatu nahi duela salatu dute. «Portuko erabilera arautzea Estatuari dagokio, baina

hirigintza eskuduntza Udalei dagokio. Foru Aldundiak «bere interesen arabera» eskuduntza horiek bereganatu nahi dituela salatu du Lezoko Udal Gobernuak. Gainera, plan horrek «Portutik datorren eta Lezo erditik pasatzen den trafikoa astunari erantzunik ez diola ematen» nabarmendu dute. Horrez gain, Pasaiaiko Portuaren eta herritarren arteko «elkarbizitza errazteko» neurririk hartu ez diotela diote.

Tunelen albistek ez

Foru Aldundiak kanpoko kaiaren sarbide izango diren tunelaren proiektua idaztea esleitu dutela «prentsaren bidez jakin» dutela dio Lezoko Udal Gobernuak, bes-

talde. «Udalaren eta herritarren borondatearen gainetik egin nahi dute proiektua, ahalik eta azkarraren» esan dute.

Horrela, Aldundiari gogorarazi diote «ezin duela inongo proiektutan agertzen ez den lanik hasi» eta «legez kanpoko» dela. Tunelaren lanek herriko trafikoa «dakaragari» haziaraziko duela salatu du Udal Gobernuak. Tunelaren eta N-1 eta A-8 errepideen arteko loturarik ez dagoela salatu dute.

Horrela, Portuak «duen garrantziaren aurka egon gabe», kanpo kaiaren aurka «borrokan» jarraituko duela adierazi du Lezoko Udalak, baita «jardueraren ekonomikoak eta osasuna bateratuko dituen biziberritze baten alde» ere.



Irudian, Papresa. IÑAKI BERRIO

Papresaren eraikin berria aztertuko dute gaur arratsaldean

Hirigintza » Lezon dituen lurretan egoitza eraiki nahi dute, eta hori aztertuko dute gaur Hirigintza Batzordean

E. GARTZIA

Erretereria eta Lezo artean kokatua dago Papresa papergintza fabrika. Enpresak berrikuntzak egin nahi ditu bere instalazioetan, eta horretarako eraikin berria eraikiko dute. Papresak Lezon dituen lurretan egoitza berria egiteko asmoa dute.

Eraikuntzaren nondik norakoa aztertzeke bilera egingo dute gaur arratsaldean, zazpietatik aurrera, Euskara eta Kultura Sailaren egoitzan. Bilera Hirigintza Batzordearen jardueren baitan kokatuta dago.

Tip Tap Claps-ek klake eta dantza ikastaroak antolatu ditu

Dantza » Asteleheneretik ostiralera eskainiko dituzte dantza eskolak; askotariko dantzak ikasteko ikasteko aukera egongo da

ERIK GARTZIA

Tip Tap Claps dantza taldearen eskutik, aurtengo ikasturtean gorputza mugitzeko aukera izango da Lezon. Hainbat ikastaro antolatuko dituzte, hainbat dantza motakoak. Goizez eta arratsaldean eskainiko dituzte dantza eskolak, Oroitzene kaleko 12. zenbakian, AEK-k egoitza duen toki berean.

Horrela, asteleheneratik 17:00etan hasita ordubetetz, hip-hop eta Street Dance-a ikasteko aukera izango da. Zazpietatik au-

rrera, berriz, helduentzako III. mailako klake ikastaroa egongo da, 20:30ak arte. Ordu horretatik 22:00ak arte, berriz, lehen maila eskainiko dute.

Astearteetan, gimnasia

Astearte goizetan, hamarretan, gorputz gimnasia terapeutikoa egiteko aukera egongo da. 17:00etan haurrentzako dantza hastapena egongo da eta 18:00etan, lehen mailakoa. 19:30etik aurrera dantza garaikidea eskainiko dute, hastapenetan ari diren hori ere.

Asteazkeneko egitaraua ere goiz eta arratsaldeko izango da. Horrela, 10:30etik aurrera, helduentzako dantza egipziarrek hastapen ikastaroa eskainiko dute, ordu eta erdiz.

Arratsaldean 18:30ean haurrentzako klake ikastaroa egongo da, lehen mailakoa. Bigarren mailakoa, aldiz, ordubetetz beranduago hasiko da. Ostegunetan, goizeko hamarretatik aurrera gorputz gimnasia terapeutikoa izango dute. 19:00etan hastapen mailako dantza afro-brasilardarreko dantza ikastaroa izango dute. 20:30etik aurrera, berriz, erdi-mailakoa.

Ostiral goizetan Pilatesaioa egiteko aukera egongo da 10:00etatik hasita. Arratsaldean, break-dance ikastaro bikoitza izango da: 17:30ean eta 18:30ean, biak ordubetetz. 19:30etik aurrera, kutxa flamenkoa jotzen irakatsiko duen ikastaroa egongo da. Informazio gehiago: 630 705 594 telefonoan edo tipapclaps@hotmail.com hel-

Akizeko katedralean abestuko du Sutargik

Musika » Festival Entrevoix jaialdian hartuko du parte musika eskolako abesbatzak; errepertorio zabala eskainiko dute

E. GARTZIA


Lezoko Sutargi abesbatzak Akizen (Okzitania) kantaldia eskainiko du gaur gauean, hiri horretako katedralean. Kantaldia 22:00etan hasiko da.

Tomas Garbizu Lezoko musika eskolako abesbatza da Sutargi eta Landetako hiri horretan uartero egin ohi duten Festival Entrevoix jaialdian hartuko du parte. Organista lanetan Patxi Intxaurrendietatik ariko da. Txistua jotzen, berriz, Estanis Karrera eta akordeoiare-

kin, aldiz, Nagore Unanue. Xanti Espinaren gidaritzapean ariko dira denak.

Errepertorio zabala

